

## **1998ko OTSAILAREN 4ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamezortziko otsailaren lauean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziak ez dira bilerara agertu, nahiz eta jakinean egon, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTEN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

### **2.- 1997 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA AURREKONTUKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA**

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen, Lizartzako Udaleko 1997ko aurrekontuaren likidazioa eta horren doku-mentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauak, Entitate Lokalen Aurre-kontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan eta abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuak, Entitate Lokalen Aurrekontu-Errege-lamendua onartzekoak, 60.3 artikuluan, emandako eskumenak erabiliz, hau

### **EBATZI DUT**

Lehena.- 1997ko Lizartzako Udaleko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Altxortegiko izakin likidoak 97-12-31ean.....	20.712.707,-
2.- Kobratu Gabeko Saldoak Guztira .....	3.739.973,-

Kobratu gabeko saldoak	
97-12-31. Aurtengo ekital..	3.637.376,-
Aurrekontuz Kanpokoak ....	102.597,-
3.- Ordaindu Gabeko Saldoak Guztira .....	24.452.680,-
Ordaindu gabeko saldoak	
97-12-31. Aurtengo ekital..	22.136.235,-
Ordaindu gabeko saldoak	
97-12-31. Itxitako Ekital..	1.480.000,-
Aurrekontuz Kanpoko Zord...	836.445,-
4.- Altxortegi-Gerakin Gordina .....	-----
5.- Saldo Kobragaitzak: .....	_____
6.- Altxortegi-gerakin likidoa: (4-5).....	-----
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina .....	_____
8.- Gastu orokorretarako altxortegi- gerakina (6-7) .....	-----
Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espeditien-tearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, eta foru dekretuak, 60.5 artikuluan, jasotakoa betez.	
Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.	

## **1997 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA**

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 1997 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

1997ko ekitaldiko Aurrekontuaren Likidazioan, 94. urtetik datorren, Goltzur Zelai Une Paisajistikoaren Plan Bereziaren Proiektuari buruzko partida azaltzen da. Hainbat urte igaro ondoren proiektu hori egina dagoela, konturatzen gara, gaur egun, zaharkiturik gelditu dela, legeak aldatu direlako.

Beraz, zera proposatu da:

Partida hoiei, bai sarrera eta baita ere irteeretan baja ematea, eta laixter berritu beharra dauden, Lizartzako Laguntzazko Arauetan, Goltzur Zelai Une Paisajistikoaren Plan Berezia desarroilatzea.

Proposamena, aho batez onartua izan da.

Jarraian, Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolnahi ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskaliza-zioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluru horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

1997 urteko Aurrekontuaren Likidazioa eta Aurrekontuko Kontu Orokorra aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

### **3.- 1998 URTEKO AURREKONTU OROKORRA**

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 1.996 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

#### **SARREREN EGOERA**

<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Pezetak</u>
1	Zuzeneko Zergak .....	10.346.844,-
2	Zeharkako Zergak .....	4.500.000,-
3	Tasak eta Beste Diru Sarrer	4.050.009,-
4	Transferentzi Korronteak...	43.228.147,-
5	Ondare Sarrerak .....	525.000,-
GUZTIRA .....		62.650.000,-
=====		

#### **GASTUEN EGOERA**

<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Pezetak</u>
1	Pertsonalaren Lansariak ..	22.514.682,-
2	Ondasun Arrunt eta Zerbit.	16.924.232,-
3	Finantza Gastuak .....	1.185.468,-
4	Transferentzi Arruntak ...	8.260.939,-
6	Inbertsio Errealak .....	10.832.822,-

9                   Finantza Pasiboak .....                   2.931.857,-

GUZTIRA .....                   62.650.000,-

=====

1998 urterako Aurrekontu Orokorra eta bera Egitaratzeko Oinarriak, aho batez onartuak izan dira.

#### PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Azterturik, Lizartzako Udaleko 1998ko Plantilla Organikoa, hau da, funtzionarioei, pertsonal laboralari eta ebentualari gordetako lanpostuen zerrenda eta baita berauei dagozkien hizkuntz eskakizunak, hau guztia 7/1985 Legeko 90.1 artikulua agintzen duenaren arabera, eta halaber 781/86 Erret Dekretu Legislatiboko 126.1 artikulua arabera, bertako zinegotzien ahobatez, erabaki da:

- 1.- Udal honetako plaza eta lanpostuen Plantilla Organikoa onartzea, 1998ko ekitaldirako, akordio honen zati espositiboan agertzen den arautegiaren arabera.
- 2.- Plantilaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea 781/1986 Erret Dekretu Legislatiboko 127 artikulua arabera eta baita Udaletxeko Ediktuen Taulan ere.
- 3.- Onartutako plantilaren kopia bat aipatu Erret Dekretu Legislatiboko 127. artikuluan aipatzen diren organismoiei bidaltzea, plantila behin aipatu medio ofizialean publikatu eta gero.

#### **PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA**

#### LANPOSTUAREN IZENA LANPOSTUKOP-TALDEA-EGOERA-OHARRAK

Idazkari-Kontuhartzailea                   1                   B                   J                   70 %

Administrari Laguntzailea	1	D	J	
Lanetako Ofiziala	1	D	J	
Garbitzailea	1	E	J	
Etxez Etxeko Laguntzailea	1	E	BB	26,67%
Gizarte Laguntzailea	1	B	BB	36 %
Liburutegiko Laguntzailea	1	D	H	40 %

### **1998 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA**

#### **KARRERAKO FUNTZIONARIEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK**

Ordena Zkia:	1
Izena:	Idazkari-Kontuhartzailea
Lanpostu Kopurua:	1
Ordainketa Osagarria:	18
Dedikazioa:	70%
Bulegoa:	Idazkaritza-Kontuhartzaitza
Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak:	
Taldea:	Gaikuntza Nazionala
Azpieskala:	Idazkaritza-Kontuhartzaitza
Klasea:	3
Hizkuntz Eskakizuna:	
Koefizientea:	4
Derrigortasun Data:	1991-02-06
Eskatutako Titulua:	Goi Batxilerra

#### **PERTSONAL LABORALARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK**

Ordena Zkia:	1
Izena:	Administrari Laguntzailea
Lanpostua Kopurua:	1
Kategori Profesionala:	7
Asimilazio Maila,	
Destinu Osagarria:	9
Dedikazioa:	Osoa
Bulegoa:	Idazkaritza-Kontuhartzaitza
Lanpostu Horretarako Exijitutako Ukanbeharrak:	

Taldea: Idazkaritza-Kontuhartzaitza  
Azpieskala: Administrari Laguntzailea  
Hizkuntz Eskakizuna:  
Koefizientea: 3  
Derrigortasuna Data: 1991-02-06

Ordena Zkia: 2  
Izena: Lanetako Ofiziala  
Lanpostu Kopurua: 1  
Kategori Profesionala: 8  
Asimilazio Maila,  
Destinu Osagarria: 11  
Dedikazioa: Osoa  
Bulegoa: Obra Bulegoa  
Lanpostu Horretarako Exijitutako Ukanbeharrak:  
Taldea: Obra Bulegoa  
Azpieskala: Obra Bulegoa  
Hizkuntz Eskakizuna:  
Koefizientea: 2  
Derrigortasun Data: 1991-02-06

Ordena Zkia: 3  
Izena: Garbitzailea  
Lanpostu Kopurua: 1  
Kategori Profesionala: 8  
Asimilazio Maila:  
Destinu Osagarria: 6  
Dedikazioa: Osoa  
Bulegoa: Obra Bulegoa  
Lanpostu Horretarako Exijitutako Ukanbeharrak:  
Taldea: AO  
Azpieskala: LZ  
Hizkuntz Eskakizuna:  
Koefizientea: 2  
Derrigortasun Data: 1992-05-01

Ordena Zkia: 4  
Izena: Etxez Etxeko Laguntzailea

Asimilazio Maila: 6  
Dedikazioa: 27,1%  
Bulegoa: LZ  
Lanpostu Horretarako Exijitutako Ukanbeharrak:  
Taldea: AO  
Azpieskala: LZ  
Hizkuntz Eskakizuna:  
Koefizientea: 2  
Derrigortasun Data: 1991-02-06

Ordena Zkia: 5  
Izena: Gizarte Laguntzailea  
Lanpostu Kopurua: 1  
Kategori Profesionala: B  
Asimilazio Maila:  
Destinu Osagarria: 13  
Dedikazioa: 36%  
Bulegoa: GO  
Lanpostu horretarako Exijitutako Ukanbeharrak:  
Taldea: AB  
Azpieskala: LZ  
Hizkuntz Eskakizuna:  
Koefizientea: 3  
Derrigortasun Data: 1991-12-01

Ordena Zkia: 6  
Izena: Liburutegiko Laguntzailea  
Lanpostu Kopurua: 1  
Ordainketa Osagarria: 8  
Dedikazioa: 40%  
Bulegoa: Administrario Orokorra  
Lanpostu Horretarako exijitituako ukanbeharrak:  
Taldea: AO  
Azpieskala: LZ  
Klasea:  
Hizkuntz Eskakizuna:  
Koefizientea: 3



Derrigortasuna Data: 1996-04-23

1998 urteko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, aho batez onartuak izan dira.

## **5.- 1998 URTEKO LANGILEEN KOMENIOA**

Alkateak, hitza harturik, Udaletxeko Langileak aurkeztu duuten, komenio kolektiborako proposamena aurkeztu du. 1997ko komeniotik aldatzen den eskaera bakarra, IPC.aren arabera, hau da, 2,1 %ko igoera da.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, IPC.aren 2,1%ko igoera onartzea, aho batez erabaki da.

### **1998 URTERAKO, LIZARTZAKO UDALERAKO**

#### **KOMENIO KOLEKTIBORAKO PROPOSAMENA**

1. Art.- Komenio honen sinatzaileek (Administrazioa eta Langileen Asanblada) errekonozitzen dute, honen oinarritzko egitura, Komunitate Autonomoko Langileen enplegu kondizioen 1997.ko Akordio Arautzailearen Testu osoa izango dela.

Errekonozimendu honek suposatzen du, komenioak afektatutako pertsonalaren enplegu kondizioetan gutxieneko maila gisa ulertzen dutela bi aldeek aipaturiko textua, eta beraz, inolaz ere ezin izango dela aipaturiko textuan iadanik lortutako eskubide laboralak baino beheragoko kontzepturik edo hauek murrizten dituenik ezarri eta aplikatu.

Aurrekoari jarraituz eta Lizartzako Udaleko Langileentzako 1998ko Komenio Kolektibo gisa, bi aldeek sinatzen duten eta betetzera eta errespetatzera konprometitzen direnaren edukin-definizio generiko gisa, ondorengo eskubide laboral bloke hauek zehazten dira:

## 1998 URTERAKO PLATAFORMA ERREIBINDIKATZAILEA

1. Blokea.- 1997ko Administrazio Lokalaren Akordio Erregulatzailearen testu orokorra eta Udaleko Komenio Kolektiboa.
2. Blokea.- Textu horri buruz, azken urte hauetan Udal langilegoak aurkeztutako zenbait plataforma erreibindikatzailan, jasotako eta onartu-tako hobekuntza eta anpliazioak.
3. Blokea.- 1998rako Komunitate Autonomo mailan, Administrazio Lokaleko akordio erregulatzailean agertzen diren hobekuntza guztiak (1997ko testuaz gain), Lizartzako Udal langile guztien aplikaziorako izango dira, aurtengo urtarrilaren lehen ez geroztik.
4. Blokea.- Bloke hau, Udal honetako langileek egindako plataforma erreibindikatzailaren zenbait puntuk osatzen dute:

### a) Pertsonal Maila

Hitzarmen honek, 1998ko plantilla osatzen eta osatuko duten langile guztiengan izango du bere eragina. Hitzarmen hau berdin aplikatuko da denentzat, inongo diskriminaziorik gabe, nahiz eta langile batek bere zerbitzua kontratatu laboral bezela bete edo funtzionari moduan.

### b) Denboraldia eta Iraupena

Hitzarmen honek, 1998ko Urtarrilaren 1etik, 1998ko Abenduaren 31 bitarte dirauko du, epe hau, 1998ko hitzarmen kolektiboa indarrean jarri artean luzatuko delarik.

### c) Lan Orduak

Udal langileek, urte osoan zehar gehiengoz, 1657,50 ordu bete beharko dute.

d) Ordainketa Taula

1998ko komenioaz afektaturik dagoen guztiak, ordainketa gordinetan igoera hau izango du: IPC - 2,1%, Administrazio Lokaleko Akordio Erregulatzaileak jasotzen duen igoera langilego guztiari ziurtatuz.

e) Kilometrajea

Lan orduetan egiten diren kilometroak, kilometro bakoitzeko 36 pezta ordainduko da.

f) Bizia, Istripu eta Elbarritasun Asegurua

Gaur egun dagoen asegurua mantenduko da.

g) Gizarte Erantzunkizunaren Asegurua

Lizartzako Udala, edozein langilei bere funtzioak betetzerakoan sor lekioken gizarte erantzunkizunaren arriskuaz arduratuko da, haren garrantziaren proportziozko kopuruan.

Alkateak, Pertsonalaren Deletatuei entzun ondoren, dagozkien polizen kondizioak erabakiko ditu.

Edozein langile, bere lanak betetzerakoan auzitan sartzea gertatuko balitz, Udalak bere defentsarako giza medioak jarri beharko ditu.

h) Urteko Oporrak

1998 urtean zehar, langile guztiak 24 lanegun (Astelehenetik Ostiralera kontatuta) opor hartzeko eskubidea izango dute, hauek ordainduak izango direlarik.

i) Osasun Errebisioa

Udalak, langile guztiei urtean behin, Osasun Errebisioa egingo die. Gutxienik, odol eta pixaren analisia, Rayos X eta Minbiziaren diagnostiko prekoza, egingo dira.

Luzatzen diren txostenak, langile bakoitzari banatuko zaizkie.

j) Lizentziak

Arcepafeko 52. artikuluan, senideen heriotza edo gaixotasun grabeagatik gainera, Internamenduarena erantsiko da.

Arcepafeko 57. artikuluan, medikuntza motako kontsulta, tratamendu eta miaketara joatearen ziozko lizentzia, urteko 48 ordukoa izango da. Lizentzi hau emango da guraso, seme-alaba eta ezkontide edo elkarbizitza egonkorra egiten duenarekin joateko ere.

k) Gaixotasun Baja

Gaixotasun bajarengatik, Udal langilegoak bere ordainketen 100%koa jasoko du, gehienez 3 urte bitarte.

l) Barne Promozioa

Bai hutsik dauden lanpostu fijoak eta sortu litezken berriak, lehenik Lizartzako Udaleko langilego fijoari eskeiniko zaizkie.

Lizartzako Udaleko edozein langilek, barne promozioan agertutako edozein lanposturen hautagai izateko eskubidea izango du, inongo diskriminaziorik gabe, nahiz eta legeak eskatzen duen ikasketa edo titulazioa betetzen duen bitartean.

m) Nibelen Berrikuspena

Trienioen arabera, langile fijo bakoitzaren nibelaren berrikuspenaren proposamena egingo da, egoki iruditzen bada, Udalak bere onarpena emango dioelarik, bere taldeari dagokion nibel haundienera iritsi arte.

5. Nibela desagertu egiten da.

n) Eskubide Sindikalak

Lizartzako Udaleko Sekzio Sindikalak bere kideen ordu sindikalak, urtero akumulatzeko eta behar dituztenean hartzeko eskubidea izango dute, beren ordezkari karguen artean, erarik hoberenean banatzeko aukera izanaz.

Langile ordezkariak egiten dituzten lan eta funtzio guztiak zerbitzu batzorde barruan eginak kontsideratuko dira, eta pertsonal zerbitzua jakinaren gainean jarri ondoren, sortu liratekeen gastuak Udalak finantziatu beharko ditu, behar den bezela justifikatu ondoren.

Lizartzako Udal langileek urtean zehar asanbladak egiteko 20 lan ordu (ordainduak) hartzeko eskubidea izango dute.

**1998 URTERAKO ORDAINKETA OROKORRAK**

IGOERA: 2,1 %

<u>NIBELA</u>	<u>1997 URTEAN</u>	<u>2,1% IGOERA</u>	<u>GUZTIRA</u>	<u>BPFZO</u>
30	512.341	10.759	523.100	26%
29	488.054	10.459	508.513	26%
28	483.761	10.159	493.920	26%
27	469.471	9.859	479.330	25%
26	455.179	9.559	464.738	25%
25	440.880	9.259	450.149	25%
24	426.601	8.959	435.560	25%
23	412.306	8.658	420.964	25%
22	398.023	8.358	406.381	23%
21	383.727	8.058	391.785	23%
20	369.441	7.758	377.199	23%
19	355.150	7.458	362.608	21%
18	340.859	7.158	348.017	21%
17	326.568	6.858	333.426	21%
16	312.278	6.558	318.836	20%
15	297.997	6.258	304.255	20%
14	283.697	5.958	289.655	19%
13	269.405	5.658	275.063	19%
12	257.003	5.397	262.400	19%
11	244.688	5.138	249.826	18%
10	232.200	4.876	237.076	18%
9	219.802	4.616	224.418	17%
8	208.263	4.374	212.637	17%
7	186.726	4.131	200.857	15%
6	185.357	3.892	189.249	15%

### 1998 URTEKO HIRURTEKOAK

IGOERA: 2,1 %

<u>TALDEA</u>	<u>1997 URTEA</u>	<u>2,1 % IGOERA</u>	<u>GUZTIRA</u>
---------------	-------------------	---------------------	----------------

A	7.186	151	7.337
B	5.836	123	5.959
C	5.245	110	5.355
D	4.235	89	4.324
E	3.743	79	3.822

## **5.- ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**

Apirilaren 15eko 86/1997 dekretuak -Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak- lehendik indarrean ziren helburu eta maila bereko eta apalagoko beste edozein xedapen baliagabetu du.

Aipatu Dekretuan oinarrituz, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak: AEBE metodologia izeneko txostena prestatu du dekretu berean aipatzen diren bere eskumeneko administrazioetarako.

Dokumentu honen helburua herri-administrazioetan urratsez urrats euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea da. Horretarako, testuinguru juridikoaz gain, kasuan kasuko helburuen arabera bideratu beharko diren normalizazio-ekintzak eta erabilera-planen AEBE metodologia (Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz) proposatzen ditu.

Guzti hori ikusirik, Udalbatzari ondorengo erabakiak har ditzala proposatzen zaio:

- 1.- Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak agintzen duen, Lizartzako Udalaren euskararen erabilera-plana prestatzen hastea.
- 2.- Aipatu plana diseinatu, onartu eta gauzatzeko, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak aipatzen duen AEBE metodologia onartzea.

3.- Guzti hori aurrera eraman ahal izateko, UEMArekin elkarlanean jardutea.

Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko planaren proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

### **6.- 3. AREAKO HIRIGINTZ HITZARMENA SINATZEKO ALKATEARI AHALMENAK EMATEA**

1988. urteko ekainaren 14ean Diputatuen Kontseiluaren Erabakiaren bidez behin betiko onartutako Lizartzako Arau Ordezkatzaileek 3. Area izeneko sektore bat definitzen dute, Araxes ibaiaren ezker aldeko lurretan kokatua dagoena, Lazaroene eta Larraeneko zubien tartean; 13.390 m<sup>2</sup>-ko gainazala okupatzen du, bizitegirako lurzoru gisa dago sailkatua eta, bertan, babes ofizialeko 38 etxebizitza egitea aurreikusia dago.

Arestian aipatutako determinazioak burutzeko asmoz, Lizartzako Udalak, 1997ko otsailaren 26ean Udaltzako hartutako erabakiaren bitartez, eta Gainazal Eskubideari jarraiki, PLAZA-SORO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN KOOPERATIBARI ematea erabaki zuen udalarenak diren partzelak, aipatu babes ofizialeko etxebizitzak bertan eraikitzeko.

Gainazal Eskubide horren lagapenaren obligaziozko eta eskubidezko determinazioa aipatu eskubidearen lagapenak berak eraendutako Baldintzen bidez dator xedatua, bai eta 1997ko urtarrilaren 28an esleipendunak eginiko eskaintzen bidez, eta bi aldeek 1997ko apirilaren 17an izenpetutako administrazio-kontratuan xedatutako baldintzen bidez.

Era berean, eskubide eta behar horien zehaztapena eta edukia 1997ko abuztuaren 11n izenpetutako Hirigintza Hitzarmenean eta herriko planeamendu orokorraren dokumentuan xedatutako determinazioetan jasotzen dira.

Lizartzako Udalak bere gain hartutako obligazioen artean -arestian azaldutako aurrekinen ondorio direnak-, "3. Arearen Urbanizazio Orokorraren Obra Proiektua - Lehenengo Fasea" deitutakoaren egikaritzapena aipa



dezakegu. Proiektu hori Jose Maria Bravo Jaunak idatzi du, 1997ko irailaren 29an onartu zen behin betiko, eta egikaritzapen materialaren aurrekontua 51.545.443,- pezetakoa da.

Bestalde, PLAZA-SORO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN KOOPERATIBAK (IFK F-20/203535), urbanizazio-proiektu hori ezagutu eta aztertu ondoren, proposamen bat egin dio Udal honi, aipatu obren egikaritzapen materiala bere gain zuzenean hartuko duela dioena.

Eskaintza horrek ikuspegi teknikoaren arabera planteatzen duena da obra zehatz batzuen egikaritzapena, hasiera batean Urbanizazio Proiektuan jasotzen ez zirenak, baina Proiektuaren hobekuntza nabarmena dakartenak. Horretaz gain, aipatu beharra dago obrak behar bezala koordinatzeko eta burutzeko mota guztietako onurak izan daitezkeela, baldin eta aipatu urbanizazio-obra eraikinetako eraikuntza-obrak egikaritzen ari den enpresak berak egikaritzen baditu.

Bestalde, eta soilik aurkeztutako eskaintzaren alderdi ekonomikoei gagozkiolarik, ezin ahaztu dezakegu eskaintza horrek beherapen ekonomiko aipagarria dakarrela berekin -4 milioi pezeta baino gehiago-, egikaritzapen materialerako hasiera batean aurreikusitako aurrekontuarekin alderatuz gero.

Gauzak horrela, eta adierazitakoaren arabera, Udalbatzari honako erabakiak onar ditzan proposatuko zaio:

**LEHENENGO.-** Lizartzako Udalaren eta PLAZA-SORO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN KOOPERATIBAREN (IFK F-20/203535) artean izenpetu beharreko Hirigintza Hitzarmenaren Zirriborroa onartzea, Erabaki honi Eranskin gisa gehitu zaiona.

**BIGARREN.-** Alkate-Lehendakaria den Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko, eta berau guztiz eraginkorra izan dadin, behar adinako administrazio-dokumentuak eta dokumentu pribatuak izenpetzeko.

3. Areako Hirigintz Hitzarmena sinatzeko Alkateari ahalmenak emateko proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **7.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

SAGRARIO GOGORZA BALERDI Andreari, Etxe Maite etxearen atzekaldeko leiho txikiak haunditu eta fatxada pintatzeko baimena.

CASTOR OLAETXEA GARAIKOETXEA Jaunari, Maikinea baserriaren teilatuari erretila eman eta sukaldean gasarentzat rejila ateratzeko baimena.

### **LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 3. AREAREN URBANIZAZIO-PROIEKTUAREN 1. FASEAREN BEHIN BETIKO ONARPENA**

Alkatetza Lehendakaritza honek, 1997ko Abuztuaren 4ean igorritako Dekretu bidez, 1988ko Ekainaren 14an behin betirako onartutako Lizartzako Arau Subsidiarioetan aurreikusitako 3. Arearen Urbanizazio Proiektuaren 1. faseak hasierako onarpena jaso zuen.

Aipatu Urbanizazio Proiektua 1. fasea jendaurrean jarri da 15 eguneko epean, 1997ko Abuztuaren 21eko, 157 zenbakidun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintziako egunkari hedatuenetako batean ere jarri da.

1997ko Irailaren 10eko datakin, IBERDROLA S.A.ren izenean, CARMEN PAGES BERTRAN Andreak, aipatu Urbanizazio Proiektua 1. fasearen aurka, alegazio idatzia aurkeztu zuen, bertan, beharrezko argi indar infraestruturaz osotasunean ez dela jasotzen esanaz.

Aurkeztutako alegazioak ikusirik, Udal Zerbitzu Teknikoak, 1997ko Irailaren 15eko datakin, txostena luzatu du:

"GAIA: A-3 Eremuko Urbanizazio Proiektuaren Alegazioa.

AURKEZLEA: C. Pages, Iberdrolaren izenean.

KOKAPENA: AASSetako A-3 Eremua.

DATA: 1997ko Irailaren 15ean.

- 1.- Aipatutako alegazioan Udal A-3 Eremuko Urbanizazio Proiektuaren emandako hasierako onarpenari eragozpen jartzen zaio.

Alegazioa Lurraren Lege eta Gestio Arautegian oinarritzen da orokorki, zehaztu gabe zertan datzan Proiektuaren hutsunea, argi azpiegituran dagoela esanik.

- 2.- Iberdrolaren erizpideak jaso dira Proiektuan: honela antolatzen da transformagailu gune bat, lehendik herrian bat bazegoelarik. Gaur egunerarte Urbanizazio proiektuetan obra zibila jasotzen zen eta argindarra banatzeko monopolioa duen Iberdrolak jartzen zituen berak inposatutako tresneria eta kableapena, Iberdrola enpresaren banaketa erizpideen arabera.

Eztabaidan dagoena ez da Lurzoru Legea eta bere Araudiak agintzen dutena betetzea, (Planeamendu Araudiaren 45.1.g, 53.2 eta 70.2 artikuluen arabera argindarra banatzeko sarearen trazaketa eta ezaugarriak jasotzen dira) baizik eta non bukatzen diren Iberdrola banatzailearen betebeharrak eta kontsumitzailearen egin beharrak.

- 3.- Urbanizazio Proiektuaren behin betiko onarpenerako ez du alegazioak eragozpenik jartzen eta eztabaidarako geratzen da Iberdrolak argindarra banatzeko sarea noraino eraman behar duen herri barruan eta herriko A-3 Eremu batek non erantsi behar duen argindarraz hornitzeko.

Zure ezagupenerako eta bere ondorio egokietarako adierazten zaizuna."

Aurrezko guztia kontutan hartuaz, eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 m) artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta apirilaren 14ko 7/1997 Legearen 4. artikulua emandako idazketa berriaren

arabera, neurri liberalizataileei buruzkoa lurzoruari dagokionez eta Elkargo Profesionalei dagokionez, honako hau

### **ERABAKI DUT:**

LEHENENGO.- Jose Maria Bravok idatzitako 3. Arearen Urbanizazio Proiektuaren 1. Fasea behin betiko onartzea.

BIGARREN.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Hirigintza Planeamendu Erregelamen-duaren 141.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jakinerazpen eta efektuetarako argitaratzen da, Administrazio-bidez behin-betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jartzea egongo da Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Zuzentza Auzitegi Gorenaren aurrean, bi hilabeteko epearen barruan, argitaratzen den egunetik hasita, egoki deritzan bestelako edozein errekurtsio jarri hal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsoa tarteratzekotan, aldez aurretik, erabaki edo ebazpen hau eman duen organoari jakin beharra dagoela jakinerazten da.

GOIKOETXEAUUNDIA ZERRA, 6. Areako ekialdean kokatu eta Serreria Goikoetxeaundia S.L.ren jabetzakoak diren lurretan, pabeilo berri bat eraikitzeko BAIMENik ez ematea.

PLAZA-SORO KOOPERATIBA, Plaza Soron, 18 etxebizitza, lokalak eta garajeak eraikitzeko baimena.

J.M. CALERO FERNANDEZ eta J.I. IRIONDO UGALDE Jaunei, Aine Artetxe Baserrian 2 etxebizitza eraikitzeko baimena.

### **8.- LIATZATIK NARBAITZURA (MAIBERATIK) DIHOAN BIDEAREN DESAFEKTAZIORAKO ESKAERA**

Jose Arzadun Eguiluz Jaunak, adin-nagusikoa eta herri honetako Iztilleta Bekoa baserrian bizi denak, 1997ko urriaren 24an idazkia aurkeztu zuen Udalean; bertan, Udalari "Besabe Errekako Bidea", aurreko espedientean, "Liatzatik Narbaitzura (Maiberatik) dihoan Bidea" deiturikoa, bide publiko gisa desafektatzeko eskatzen dio.

Idazkiaren edukia ikusita, badirudi Arzadun Jaunaren ustetan bide hori ez dela inoiz izan udal-jabetzarena; halaber, baieztapen horretan oinarritu da egun aipatu bideak duen gurdibide-izaera ukatuz.

Orain aurkeztutako eskaerari dagokionez eta hura nahitaez aipatzen duten gertuko aurrekinen artean, Lizartzako Udalak 1997ko maiatzaren 7an egindako Udalbatzan hartutako Erabakia aipatu behar da, izan ere, erabaki horrek orain desafektatzea eskatu den bide beraren jabetzari eragiten dio.

Bestalde, aipatu administrazio-egintzaren ondorioz, herriko Salsamendi Artola Jaunak salaketa egin zuen, bide horretan pilote batzuk agertu zirelako, bidea erabiltzea eragozten zutenak eta Zelain-Artetxe eta Etxeaundia borden arteko pasabidea tratatzen zutenak.

Gauzak horrela, eta dagokion espedientea ireki aurretik, 1997ko maiatzaren 7an egindako Udalbatzan hartutako Erabakiaren xedapenezko alderdiak honako erabakiak hartu zituen:

- 1) Jose Arzadun Eguiluz Jaunari hamabost eguneko epean bide horretan jarritako piloteak ken zitzan eskatzea, bidea libre utziz.
- 2) Aipatu interesdunari ohartaraztea, egintza hori burutu ezean Lizartzako Udalak ekingo liokeela piloteak kentzeari, arau ordezkatzailleetan legez aurreikusitako prozeduraren bitartez.

Arestian aipatutako administrazio-espeditentea dela kausa, eta Txosten teknikoak, lekukoen adierazpenak eta udal-artxiboetan dauden datuak ikusita, aipatu ondasun higiezinak jabari eta erabilera publiko izaera duela egiaztatzen.

Bestalde, aipatu beharrekoa da bide hori udal-titulartasun gisa jaso dagoela dagokion Udal Inbentarioen, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 17. eta segidako artikuluetan agintzen denaren arabera, zeinen bidez, Toki Erakundeetako Ondasunen Erregelamendua onartzen den.

Jabari eta erabilera publikoaren ondasun baten desafektazioak bere kalifikazio juridikoaren aldaketa dakar, eta, ondorioz, ondarezko ondasun bilakatzen da.

Jose Arzadun Eguiluz Jaunak aurkeztutako idazkia ikusi ostean, ez dago argi horixe denik eskatzaileak premiatutako asmoa; izan ere, idazkian azaldutako edukiak eta arrazoiak kontuan izanik, badirudi eskaeraren xedea ez dela berez desafektazioa eskatzea, administrazio-bidez eztabaidagarria den bide hori bere titulartasuneko litzatekeela aitortzea baizik.

Adierazi behar da jabari publikoko ondasunak, besterenezinak, ezin bahituzkoak eta preskribaezinak direla; eta, planteatutako eskaera erabakitzeke, ez du garrantzirik izango lehendik zegoen pasabidea hobetzeko eta handiagotzeko obrak bizilagun batek -eskatzaileak dioten bezala- egitea, eta bere baimenaren pean.

Aurrekoa azalduta, eta emandako txostenen eta Udalean dauden datuen arabera, nabarmena da "Besabe Errekako Bidea", aurreko espeditentean, "Liatzatik Narbaitzura (Maiberatik) dihoan Bidea" deituriko bidearen administrazio-titulartasuna eta -jabetza, izan ere, bertan bere garaian bizilagunek bere bidearen erabileraren gainean adierazitakoa jasotzen da,

katastroko egiaztapena ere bai; gainera, Udaleko Ondasunen Inbentarioan ere horrelako datuak daude.

Guzti hori, eta Idazkariak luzatutako txostena aztertu ondoren, Udalbatzari, honako Erabakia har dezan proposatzen zaio:

Atzera botatzea Jose Arzadun Jaunak egindako eskaera, hau da, Udalak "Besabe Errekako Bidea", aurreko espedientean "Liatzatik Narbaitzura (Maiberatik) dihoan Bidea" deituriko bidea jabari eta erabilera publikoko bide gisa desafektatu zedin zioena, Udal Inbentarioan 299. zenbakia duena.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **9.- URJENTZIZKO GAIA**

Bilkurako deia egin ondoren, Bake Epaitegietako Idazkarien Elkarteari buruzko arazoa sortu da.

Erabakia lehenbaitlehen hartzekoa denez, Bilkura honetan tratatzea proposatu da.

Proposamena aho batez onartua izan da.

## **BAKE EPAITEGIEN IDAZKARITZEN ELKARTEA**

1993ko Azaroaren 23an, Tolosaldeko Bake Epaitegietako Idazkaritza Elkartearen sustatzeko proposamen bat luzatu zen.

Garai horretan, eta Elkartearen funtzionamendua nola izango zen zehaztu gabe, 1994ko Urriaren 19ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez, elkarte hori bultzatzea erabaki zen; bertan, Elkarte horretarako izendatu behar zen

pertsonala, Udal honetan onartua izatekotan, nahita ez, lana EUSKARAZ egiteko gain izan behar zuela azpimarratzen zen.

Dekretu hori luzatu zenetik, 3 urte pasa direnean, gehiagoko zehaztasunik gabe, Elkarterako pertsonala izendatu eta Urtarrilaren 21etik aurrera lanean hasteko prest direla jakinerazi zitzaion Udal honi, Urtarrilaren 29an, Ibarako Udaletxean ospatu behar zen bilera batera deituz, Udalen eritzia jaso ahal izateko.

Egun horretan, hainbat udalerrietako Alkate eta Idazkariekin bilera egin ondoren, LIZARTZA, OREXA, LEABURU, GAZTELU eta ELDUAINgo Udaletzek, elkarrean jarraitzeari buruz, beren udaletan erabakia hartzeko epea luzatzea eskatu zuten, horrela onartuaz.

Elkarte horren funtzionamendurako proposatu den egun eta ordutegia, hau izango litzateke:

Ostiralean, 4 ordu goizez.

Elkarterako izendatutako justiziako agenteak, euskaraz ez daki. Idazkari lanetarako izendatutako ofizialak bai.

Bilera horretan agertu zen kezkatako bat, zerbitzuarena izan zen. Gaur egun dugun Idazkariarekin, asteko egun guztietan, Bake Epaitegia zerbitzuan dago eta, izendapen berri hauekin, ostiralera mugatuta gelditzen da, horrek herriko jendeari sortuko lizkiokeen kalte guztiekin.

Bake Epaileak hitza harturik, zera dio:

Ez duela bidezkoa ikusten, zerbitzu hori, egun batera mugatzea, gaur egun dagoenarekin jarraitzeko posibilitatea egon da. Beraz, bere proposamena, Bake Epaitegien Idazkaritza Elkarrean ez sartzea dela.



Bake Epailearen proposamena eta gaia sakonki aztertu eta eztabaidatu ondoren, Alkateak, zera proposatu du:

- 1.- Bake Epaitegien Idazkaritza Elkartean ez sartzea, Herriarentzat zerbitzu murrizketa bat suposatzen duelako.
- 2.- Gaur egun, lan hori betetzen duen, Udaletxeko Idazkari-Kontuhartzailea den, ANA JESUS ZABALA GARMENDIA, lan horretarako berrestea.
- 3.- Erabaki honen berri, Bake Epaitegien Idazkaritza Elkarterako izendatuak izan diren, Idazkaria, Justiziako Agentea eta Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Sailaren jakinean jartzea.

Bake Epaitegien Idazkaritza Elkarteari buruz, Alkateak luzatu duen proposamena, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak laurdena-gutxiago direnean.